

GURE MUGEN KANPOKO ETA BARRUKO BERRIAK

COVID-19AREN OSTEKO SUSPERTZE EKONOMIKOAK EDUKI JASANGARRIA IZAN BEHAR DU, EUROPAKO INSTITUZIOEN ETA MUNDU OSOKO HIRI HANDIEN ARABERA

Mundu osoko hainbat hiri garrantzitsutako alkateek printzipio konpartituak ezarri dituzte COVID-19aren krisitik ateratzeko, “iraganeko normaltasunera” itzuli beharrean jasangarriagoa, erresilienteagoa eta bidezkoagoa den “normaltasun berri” bat eraikitzeko; bada, ildo beretik, Europar Kontseiluak eta Europako Batzordeak ere hasierako proposamen bat prestatu dute ekonomia suspertzeko, eta hor proposatzen da laguntza eta inbertsioen ardatzak trantsizio ekologikoa, eraldaketa digitala eta autonomia estrategikoa handiagoa izatea, Batasuna erresilienteagoa izan dadin. Horrek erosketa publikorako ere baditu ondorioak, zeren bat egin beharko baitu lehentasun horiekin.

Alkatetzen arteko itunari buruzko informazio gehiago: [\[+\]](#) (ingelesez)

EBrako plan proposamenari buruzko informazio gehiago: [\[+\]](#) (ingelesez)

EUROPAKO EKONOMIA ZIRKULARRERAKO EKINTZA-PLAN BERRIAK EROSKETA BERDERAKO BETEBEHARRAK SARTZEN DITU BARNE

Europako Batzordeak martxoan argitaratu zuen “Ekonomia zirkularrerako ekintza-plan berria”, Batzordeak planteatzen du derrigorrezko irizpide eta gutxieneko helburuak ezartzea erosketa berderako, 2021etik aurrera (legedia sektorial bakoitzean definitu behar dira), eta, horrekin batera, horien txertatze eta lorpenaren berri eman behar izatea eta beste neurri batzuk ezartzea bizi-zikloaren ebaluazioa obra eta eraikuntza publikoaren kontratazioan integratzeko.

Informazio gehiago: [\[+\]](#)

BADAGO ESKURAGARRI HERRIALDEETAKO KONTRATAZIO JASANGARRIAREN INPLANTAZIOARI BURUZKO 12.7.1. GJHA KALKULATZEKO METODOLOGIA

Badago eskuragarri Garapen Jasangarriaren 12.7. Helburuaren -"Jasangarriak diren jardunbideak sustatzea erosketa publikoan- aurrerapen maila ebaluatzea ahalbidetzen duen metodologia. Estatuko, eskualdeetako, probintzietako eta udaletako gobernuek jadanik ebaluatu dezakete euren inplementazio maila, munduko eskalan adostutako adierazle batez.

Informazio gehiago: [\[+\]](#) (ingelesez)

EROSKETA BERDEAREN PROGRAMAREN JARDUEREI BRUZKO TXOSTENAK ARGITARATU DIRA

Ihoberen webguneko Euskadiko erosketa berdearen Programaren atalean jadanik kontsulta daitezke Euskadiko erosketa eta kontratazio publiko berdearen Programari lotutako jardueren txostenak, 2016tik 2019ra bitartekoak. Hor jasotzen dira urtero egindako ekintza guztiak, atxikimenduen aurrerapena, eta Euskadiko erosketa berdearen maila.

Informazio gehiago: [\[+\]](#)



EUSKADIKO TRESNA ETA JARDUNBIDE EGOKIAK

INGURUMEN-ZIURTAPENAK EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKOAN ERABILTZEKO GIDA PRAKTIKOA

Ingurumen-ziurtapenak (ingurumena kudeatzeko sistemak barne sartuta) espezifikoki aipatzen dira Kontratuen Legean, kontratazio publikoan erabil daitezkeen tresna gisa. Hala eta guztiz ere, haien aplikazioa ez da beti ondo egiten. Gida honek azaldu nahi digu nola funtzionatzen duten tresna hauek, zer-nolako eragin zuzena duten Kontratuen Legean ematen zaien formulazioan, eta, horretan oinarrituta, nola erabili behar diren modu egokian. Dokumentuak ohikoak diren okerrak ere jasotzen ditu, nola saihestu daitezkeen azaltzeaz batera.

Informazio gehiago: [\[+\]](#)

JARDUNBIDE EGOKIA: “ZERO PLASTIKOA” BILBOKO EUSKALDUNA JAUREGIKO CATERING ETA SUKALDARITZA ZERBITZUETAN

Badago eskuragarri erabilera bakarreko plastikoak jauregian eskaintzen diren catering eta sukaldaritza zerbitzuetatik ezabatzeko xedez Euskalduna Jauregiak abiatu duen ekimenari buruzko jardunbide egokia; horren funtsa erakundearen eta sukaldaritza-zerbitzuen kontzesioa duten enpresen arteko elkarrizketa eta konpromiso konpartitua dira. Kalkulatzen da ekimen honi esker 1.400 kg hondakin plastiko saihestu daitezkeela urtean.

Informazio gehiago: [\[+\]](#)



GARRANTZIA HARTZEN ARI DIREN EREMUAK:

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA BERE ORDENAGAILUEN HURRENGO LIZITAZIOA PRESTATZEN ARI DA, BIZI-ZIKLOAREN KOSTUAK ESLEIPENERAKO IRIZPIDE GISA TXERTATUTA

Aldundia -bizi-zikloaren kostuak ordenagailuen kontratazioan aztertzen duen talde pilotuko partaidea da- bere ordenagailuen, ordenagailu eramangarrien eta monitoreen hurrengo lizitazioa prestatzen ari da, eta produktuen bizi-zikloaren kostuak sartuko ditu balorazio ekonomikoaren irizpide gisa, erosketaren prezioa soilik baloratu beharrean.

Interesatutako enpresei nobedade horren berri emateko eta haien eskaintzetan zer eragina duen azaltzeko, merkatuarekin kontrastatzeko mintegi bat antolatu da (ikus aurrerago).

LOGISTIKA JASANGARRIA AMSTERDAMGO UNIBERTSITATEAN 5 URTEZ IKERTZEAK ETA INPLEMENTATZEAK UTZITAKO LEZIOAK

Azken 5 urteetan, Unibertsitate holandarrak askotariko ekimenak inplementatu ditu jasangarritasuna erakundearen logistika eta banaketa sisteman hobetzeko -hornidura eta mezularitzako kontratu batzuen preskripzioetan horrek izandako inpaktuarekin-. Urratsak, esperientziak eta ikasitako lezioak argitalpen batean jaso dira.

Informazio gehiago: [\[+\]](#) (ingelesez)



JARDUNALDIAK ETA EKITALDIAK

ORDENAGAILUAK HORNITZEN DITUZTEN ENPRESENTZEKO MINTEGIA: BIZI-ZIKLOAREN KOSTUAK ESLEIPENERAKO IRIZPIDE EKONOMIKOTZAT HARTZEN DUTEN LIZITAZIOAK

Datorren ekainaren 18an -12:00etatik 13.00etara-, ordenagailuak hornitzen dituzten enprekin koordinatzeko web mintegi bat egingo da; bertan aurkeztuko da Gipuzkoako Foru Aldundiak duen asmoa, alegia, bizi-zikloaren kostuak balorazio ekonomikoko irizpide gisa sartzea horrelako produktuen hurrengo lizitazioan, eta azalduko da zer-nolako eragina izango duen horrek haien eskaintzetan, horretarako prestatuta egon ahal izan daitezen.

Informazio gehiago: [\[+\]](#)

KONTRATAZIO PUBLIKOETAN SARTUTAKO INGURUMEN-KLAUSULA ETA -IRIZPIDEEN JARRAIPENARI BURUZKO MINTEGIA, ERAKUNDE PUBLIKOEI ZUZENDUTA

Datorren ekainaren 19an -12:30etatik 14:00etara-, kontratazio publikoan sartutako ingurumen-klausulen jarraipena egiteko estrategiei buruzko web mintegi bat egingo da; helburua da segurtatzea adjudikaziodunek exijitutako eta/edo eskainitako ingurumen-baldintzak benetan eramaten direla praxira kontratuen gauzapenean.

Informazio gehiago: [\[+\]](#)

Informazio gehiago: www.ihobe.eus/

Edozein iruzkin, ekarpen edo iradokizun egiteko, Ihobera jo dezakezu:

- Telefonoa: **94 423 07 43**
- Posta elektronikoa: **compra.verde@ihobe.eus**